

HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZA

LEHEN URRATSEKO HELBURUAK: A1

AHOZKO ULERMENA / ENTZUMENA

- 1.- Eguneroko behar sinple eta zehatzekin zerikusi duten adierazpenak uler ditzake, argi esaten badizkiote, poliki eta behin baino gehiagotan.
- 2.- Ahozko testu motel eta artikulatua jarrai dezake, geldiene luzeak dituen esanahia ulertu ahal izateko.
- 3.- Galderak eta instrukzioak uler ditzake, eta jarraibide labur eta sinpleak jarraitu.
- 4.- Zenbakiak, salneurriak eta orduak uler ditzake.
- 5.- Deskribapen labur bat uler dezake, ezagunak diren hitzak eta oinarrizko esamoldeak erabiltzen badira eta keinuz laguntzen bada.
- 6.- Gertaera labur baten kontaketa uler dezake, ezagunak diren hitzak eta oinarrizko esamoldeak erabiltzen badira eta keinuz laguntzen bada.

AHOZKO ADIERAZPENA / MINTZAMENA

- 1.- Datu pertsonalak eman ditzake.
- 2.- Informazioa eska dezake.
- 3.- Adostasuna/ Ezadostasuna adieraz dezake.
- 4.- Erantzun laburrak eman ditzake.

IDATZIZKO ULERMENA / IRAKURMENA

- 1.- Informazio testu eta deskribapen sinpleen ideia nagusia uler dezake, batez ere testua azaltzen laguntzen duten irudiak baditu.
- 2.- Instrukzio labur eta sinpleak jarrai ditzake, batez ere irudiak baditu.
- 3.- Izen ezagunak eta hitz eta esamolde oso sinpleak ezagut ditzake, iragarki sinpleetan eta eguneroko egoera arruntetan.
- 4.- Mezu labur eta sinpleak uler ditzake, postal batekoak, adibidez.

IDATZIZKO ADIERAZMENA / IDAZMENA

- 1.- Lagunei zuzendutako ohar sinpleak idatz ditzake.
- 2.- Non bizi den deskriba dezake.
- 3.- Datu pertsonalak eskatzen dituzten formularioak bete ditzake.
- 4.- Esaldi eta esamolde sinple eta bananduak idatz ditzake.
- 5.- Postal labur eta sinplea idatz dezake.
- 6.- Gutun labur eta oharrak idatz ditzake hiztegiaren laguntzaz.